

Garapen Jasangarriaren aldeko Arabako Aliantzak eskola kiroleko jardunbide egokien dekalogo bat argitaratu du klimaren aztarna murrizteko

Proposamenen artean nabarmentzen dira, besteak beste, aldagelatik ateratzean argia itzaltzea, komuna paperontzi gisa ez erabiltzea, bost minutuko dutxak hartzea eta bizikletan edo oinez entrenatzera joatea

Vitoria-Gasteiz, 2022ko azaroaren 24a. Garapen Jasangarriaren aldeko Aliantzak, 13. GJH eta 3. GJHen bidez, eskola kiroleko jardunbide egokien dekalogo bat argitaratu du, aztarna klimatikoa murrizteaz kontzientziazteko.

Helburua da hainbat kirol diziplinatako ikasleei azaltzea beren eguneroko ekintzek ingurumenean duten eragina, eta identifikatzea zein diren ingurumenean eragin handiena dutenak. Dokumentuak ikasleen ohituretan eta errutinetan jartzen du arreta, eta jasangarriagoak izateko ekintza txikiak proposatzen ditu.

Proposamenen artean nabarmentzen dira, besteak beste, aldagelatik ateratzean argia itzaltzea, komuna paperontzi gisa ez erabiltzea, 5 minutuko dutxak hartzea eta bizikletan edo oinez entrenatzera joatea. Kontzientziazteko modu bat, kirolari gazteek osasunean eta ongizatean jardunbide egokiak berenganatu ahal izateko ekintzak eskuratu eta finkatzeko, ingurumenarekin konpromiso handiagoa hartuta.

Dekalogo bideo baten bidez ezagutaraziko zaie Arabako kirol klub eta taldeei, taldeen artean parteka eta zabal dezaten. Gainera, Gasteizko gizarte etxeetan eta lurraldeko hainbat herritako kirol instalazioetan kartelak jartzea aurreikusi da.